<p>9.1. Agentziaren kontabilitatearen eta altxortegi orokorraren kudeaketa.</p> <p>9.2. Aholkularitza aurrekontu-plangintzaren formulazioan.</p> <p>9.3. Agentziaren kontratazio-prozeduren formulazioa eta instrukzioa.</p> <p>9.4. Agentziaren zerbitzu orokorren kudeaketa.</p> <p>9.5. Agentziaren giza baliabideen kudeaketa.</p>		<p>9.1. Gestión de contabilidad y tesorería general de la Agencia.</p> <p>9.2. Asesoramiento en formulación de planificación presupuestaria.</p> <p>9.3. Formulación e instrucción de los contratos de la Agencia.</p> <p>9.4. Gestión de los servicios generales de la Agencia.</p> <p>9.5. Gestión de los recursos humanos de la Agencia.</p>

3. 2013RAKO HELBURU OROKORRAK ETA BERAUEN ZENBATEKOA

3. OBJETIVOS GENERALES PARA EL AÑO 2013 Y SU CUANTIFICACIÓN

3.1. LANKIDETZARI BURUZKO EUSKAL LEGEAREN AURREIKUSPENAK GARATZEA

Bere hirugarren funtzionamendu-urtean, talde teknikoko ia pertsona guztiak lanean hasi ondoren, Agentziak ezinbesteko helburu orokor hau dauka: Lankidetzaren Legea garatzea, bai erregelamenduzko garapenaren ikuspuntutik, bai plangintzaren, kudeaketaren eta ebaluazioaren esparruan dauzkan mandatuak betetzearen ikuspuntutik. Agentziaren finkatze politikoa eta egiturazkoa gauzatuko bada, nahitaezkoa izango da lankidetzaren erregimen juridikoaren ahal guztiak sustatzea eta haren aurreikuspenak gogoetatsuki, egokiro eta mailaz maila betetzea. Hori guztia gobernuak arlo honetan egiten duenari koherentzia politikoa eta funtsezkoa emateko xedearekin.

Erregelamenduzko garapenaren ikuspuntutik, Agentziak beharrezko den guztia sustatuko du lankidetzako eragileen erregistroa arautuko duen dekretua egin eta onartzeko. Era berean, lankidetzarako baliabideen berrikuspina egiten ahaleginduko da, eta lehentasuna emango dio egokitze-behar premiazkoena duten baliabideen berrikuspenari.

Plangintzari dagokionez, ezinbestean lortu beharreko helburuak honako hauek dira: a) plangintza-orientabide orokorrak egitea eta onartzea; b) Lau Urteko Gida Plana egitea eta onartzea; c) 2013ko ekitaldirako Garapenerako Lankidetzako Urteko Plana egitea eta onartzea eta d) Ebaluazio Plan Orokorra egitea eta onartzea. Azken helburu horren ondorio moduan, beharrezkotzat jotzen da "Herialde-estrategia" plangintza-tresnaren ebaluazioari ekitea.

3.2 GARAPENERAKO LANKIDETZA-BALIABIDEEN KUDEAKETA, AURREKONTU-AUKEREKIN BAT ETORRITA

Garapenerako lankidetzaren erregimenaren funtsak otsailaren 22ko 1/2007 Legearen aurreikuspenetan dauka bere oinarria, eta lankidetzaren hori, nagusiki, lankidetzarako baliabideetako bakoitza identifikatzen duten erregelamendu-mailako zenbait arautan erregulatutako administrazio-mekanismoekin batera abiarazten da. Dekretu-multzo horrek EAEko Herri Administrazioak lankidetzarako politika publikoak egikaritzeko baliatzen dituen bideak arautzen ditu. Funtsean, haren aurreikuspenek aditzera ematen dute zer helburu eta mekanismo erabili eta zer baldintza bete behar dituzten proposamenek eta proposamen-egileek xede jakin bat erdiesteko beharrezko laguntzak jasotzeko. Baliabideak deialdi publikoen bidez abiarazten dira. Aurrekoa baztertu gabe, Agentziak hitzarmenak izenpetzeko aukera dago, deialdi horiek erabili behar izan gabe, aipatutako mekanismoak erabiliz ezin lor daitezkeen helburuak erdietsi nahi izanez gero.

3.1. DESARROLLAR LAS PREVISIONES DE LA LEY VASCA DE COOPERACIÓN

En su tercer año de funcionamiento, una vez incorporadas la práctica totalidad de las personas integrantes de su equipo técnico, la Agencia se plantea como objetivo general, de carácter ineludible, el desarrollo de la Ley de Cooperación, tanto desde la perspectiva del desarrollo reglamentario, como desde el cumplimiento de sus mandatos en el ámbito de la planificación, de la gestión y de la evaluación. La consolidación estructural y política de la Agencia pasa, necesariamente, por fomentar todas las potencialidades del régimen jurídico de la cooperación y por el reflexivo, adecuado y escalonado cumplimiento de sus previsiones. Todo ello con el objetivo de dar coherencia política y sustantiva a la acción gubernamental en la materia.

Desde la perspectiva del desarrollo reglamentario, la Agencia impulsará las acciones necesarias para la elaboración y aprobación de un Decreto que regule el Registro de Agentes de Cooperación. Asimismo procurará una revisión de los instrumentos de cooperación dando preferencia a la de aquellos cuya necesidad de adaptación se valore como más perentoria.

En lo que a la planificación se refiere, los objetivos cuyo alcance se entiende ineludible son: a) elaboración y aprobación de las orientaciones generales de planificación; b) elaboración y aprobación del Plan Director Cuatrienal; c) Elaboración y aprobación del Plan anual de Cooperación para el Desarrollo, correspondiente al ejercicio 2013 y d) Elaboración y aprobación de un Plan General de Evaluación. Como corolario de este último objetivo se entiende necesario abordar una evaluación del instrumento de planificación "Estrategia-País".

3.2 GESTIÓN DE LOS INSTRUMENTOS DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO, EN COHERENCIA CON LAS DISPONIBILIDADES PRESUPUESTARIAS

La cooperación para el desarrollo, cuyo régimen sustantivo tiene su esencia en las previsiones de la Ley 1/2007, de 22 de febrero, se implementa, básicamente, a través de la puesta en marcha de los mecanismos administrativos regulados en distintas normas de rango reglamentario que identifican cada uno de los instrumentos de cooperación. Este conjunto de Decretos regula las fórmulas a través de las que la Administración Pública ejecuta las políticas públicas de cooperación. En esencia, sus previsiones establecen los objetivos, los mecanismos y los requisitos que han de cumplir propuestas y proponentes para conseguir las ayudas necesarias para la consecución de una finalidad determinada. La puesta en marcha de los instrumentos se lleva a cabo a través de convocatorias públicas. Sin perjuicio de lo anterior, existe la posibilidad de que la Agencia suscriba convenios, al margen de esas convocatorias, para la consecución de objetivos cuya consecución no puede alcanzarse en aplicación de los mecanismos referidos.

GGKEen lankidetzajardueraren finantzatzeko mekanismo horiek –dela diru-laguntzak emanez prozedura orokorretan, dela zuzeneko bide konbentzionalaren bitartez hartutako konpromisoen bidez– alderdi azpimarragarri bat dute: gehienetan, zenbait urtetan egikaritzen dira. Horrek esan nahi du finantzatzaren diren proiektuen ekonomia- eta aurrekontu-bizitzak aurrekontu-ekitaldi baten denboramuga gainditzen duela eta, argi esanda, EAEko Herri Administrazioak garapenerako lankidetzahelburu bat lortzeko bere gain hartzen dituen konpromisoak denboran zehar luzatzen direla, gutxienez hiru aurrekontu-ekitalditan, Agentziaren jardunaren zatirik handiengan.

Aurrekontuarekiko konpromiso-bide horrek berekin dakar Agentziak ekitaldi jakin baterako prestatutako kontu publikoetan kontuan hartu behar izatea aurreko ekitaldietako administrazio-jardueren ondorioz hartutako konpromiso ekonomikoak, haiek betetzen ahalegindu behar baita. Gogoeta horrek berebiziko garrantzia dauka Agentziak 2013ko ekitaldirako hartutako aurrekontu-konpromisoen zenbaterainokoa memoria honetan adieraztean.

Garapenerako lankidetzaren Euskal Agentziak, EAEko Herri Administrazioaren barruko erakundea denez, bere egin behar ditu Jaurlaritzak bere aurrekontu-helburuak eta xede makroekonomikoak lortzeko onartutako doikuntzak. Egungo egoera ekonomikoa konplexua izaki, jardun politikoa intelektualki birkokatu behar dugu, baliabideen esleipena egokia izan dadin, geroaren ikuspegia galdu gabe, hartu diren doitze-erabakiak unean unekoak direla ulertuta.

Aurrekontu-doikuntzen zuzeneko ondorioa da Jaurlaritzaren garapenerako lankidetzarako jarduna zuzentzearen ikuspuntutik eta hartutako konpromisoen errespetuan oinarrituta planteatu behar izatea. Lehenik eta behin, Agentziak esleitu zaizkion baliabideekin erantzungo die aurreko ekitaldietan hartu diren baina 2013an bete behar diren konpromisoei. Ahal den neurrian, eta aurreko ekitaldietan lankidetzabaliabideak jendaurreko egiteko erabilitako kronogramaren denbora-berrantolaketa bidez, unean uneko deialdiak behar bezala sailkatuko dira, eta lehentasuna emango zaie estrategikotzat jotakoei. Segida hori bera ezarriko da izenpetze zuzeneko hitzarmenen formulazioari buruzko erabakien esparruan.

Agentziaren arduradunek badakite aurre egin behar dioten unea zaila dela, baina itzulgarria. Egungo errealitate ekonomikoak epe laburrean edo ertainean onbideratuko direla jakiteak, esperantza horrek, une honetako arduren kudeaketa kezka baina ausardiak egitea behartzen ditu.

Un aspecto relevante de esos mecanismos de financiación de la actividad de cooperación que se llevan a cabo por las ONGD –ya sea a través de concesión de subvenciones en procedimientos generales o bien a través de los compromisos adquiridos por la vía convencional directa– es que su ejecución, en la mayor parte de los supuestos, es de carácter plurianual. Quiere esto decir que la vida económica-presupuestaria de los proyectos que se financian excede del límite temporal de un ejercicio presupuestario y que, sencillamente expresado, los compromisos que la Administración Pública Vasca asume para la consecución de un objetivo de cooperación para el desarrollo se proyecta en el tiempo, cuando menos, a lo largo de tres ejercicios presupuestarios, en la mayor parte de la actividad de la Agencia.

Esta fórmula de compromiso presupuestario supone la necesidad de que, al formular las cuentas públicas de la Agencia para un ejercicio en concreto, han de tenerse en cuenta los compromisos económicos adquiridos por actuaciones administrativas de ejercicios precedentes cuya ejecución ha de procurarse. Esta reflexión es de singular importancia a la hora de plasmar en esta memoria el alcance de los compromisos presupuestarios de la Agencia para el ejercicio 2013.

La Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, en cuanto entidad integrada en la Administración Pública del País Vasco, está sometida a los ajustes aprobados por el Gobierno para alcanzar los objetivos presupuestarios y macroeconómicos que el ejecutivo se plantea. Una situación económica compleja como la que vivimos requiere, para la adecuada asignación de recursos, reubicar intelectualmente las acciones políticas, sin perder la perspectiva de futuro al entender el carácter coyuntural de las decisiones de ajuste que se han adoptado.

La consecuencia directa de los ajustes presupuestarios nos obliga a plantear la acción de gobierno en materia de cooperación para el desarrollo desde la perspectiva de la prudencia y desde el respeto a los compromisos adquiridos. En primer lugar, la Agencia responderá con los recursos que le han sido asignados a los compromisos adquiridos en ejercicios precedentes pero que han de ser cumplimentados en 2013. En la medida de lo posible, y a través de una reordenación temporal del cronograma que se ha seguido en ejercicios anteriores para la publicitación de los distintos instrumentos de cooperación, se secuenciarán adecuadamente las convocatorias correspondientes, dando prioridad a aquéllas a las que se otorgue un carácter estratégico. Esa misma secuenciación se operará en el ámbito de las decisiones sobre la formulación de convenios de suscripción directa.

Las personas responsables de la Agencia tienen la consciencia de que se enfrentan a un momento complicado, aunque reversible. Esa consciencia, la esperanza de la reversión a corto o medio plazo de las actuales realidades económicas, obligan a asumir, con preocupación, pero con audacia, la gestión de sus responsabilidades en este momento.

Lortu nahi diren helburuei lotuta egindako jarduerak "bertatik zuzenean" kontrolatzea da Agentziaren laguntza ekonomikoa jasotzen duten jardueren kudeaketaren eta egikaritzapenaren kontrolaren oinarritzko alderdietako bat. Horregatik, eta ekonomia- nahiz aurrekontu-egoerak eskatzen duen zuhurtzia kontuan hartuta, interes handienekotzat jotako jarraipen-bisitak egingo dira.

3.3. PRESTAKUNTZA

Garapenerako lankidetzeta-politika diseinatzea eta gauzatzea da Agentziaren funtsezko helburua. Uste dugu ez dagoela lekuz kanpo esatea administrazioaren eskumen-esparru horrek behar-beharrezkoak dituela berariazko oinarri intelektual batzuk eta, haiek lortzeko eta eguneratzeko, beharrezkoa dela etengabeko prestakuntza-prozesua izatea, ez soilik teknikarientzat. Kudeaketa-politikak eta -sistemak errazago ulertzeko beharrezko baliabide profesionalak lortzea modu berean aldarrika daiteke lankidetzeta-jardueren funtsezko konplexutasunari zuzenean aurre egin behar dioten langileentzat eta, administrazio-arloko laguntza-funtzioak betetz, prozeduren izapidetze burokratikoan presentzia iraunkorra duten langileentzat, ikuspuntua edozein izanik ere.

Azaldutako arrazoiengatik, Agentziak bana-banako prestakuntza-plan bat prestatuko du bere zerbitzuan diharduten langileentzat, eta hura, denboran zehar behar bezala banatuta, zenbait fasetan egingo da:

Lehenengoan hau landuko da: Agentziari lotutako langileen prestakuntza-behar orokorren eta espezifikoen diagnostikoa eta identifikazioa.

Bigarrena aurrekoaren ondorio izango da: Agentziari lotutako pertsonetako bakoitzari banako prestakuntza-plan espezifikoa aplikatzea.

3.4. GARAPENERAKO LANKIDETZAREKIN LOTUTAKO INFORMAZIOA ZABALTZEA

Agentziaren ekintza eta jardura askok merezi dute zabalkunde ordenatua, egituratua eta iraunkorra egitea. Alde batetik, ez dugu ahaztu behar erakundearen kudeaketa eta lortutako emaitzak Jaurlaritzak informazioa hedatzeko darabiltzan politiken barruan kokatu behar direla. Era berean, ez dugu ahaztu behar agindupeko publikoek eta, oro har, herritarrek eskubidea dutela egokitu zaion kudeaketaren zer-nolakoaren bidezko kontrol politiko eta soziala lortzeko oinarritzotzat eta funtsezkotzat jo behar diren informazioak jasotzeko.

Inola ere alde batera utzi gabe Agentziaren jardueretako batzuek agerpen publikoa izan behar dutela kasuan kasuko aldizkari ofizialen bidez, egia da badaudela beste komunikazio-bide batzuk, ezagutzaren gizarteak bultzatuak, informazioa lortzeko aukera errazten eta sozializatzen dutenak.

Uno de los aspectos básicos del control de la gestión y ejecución de las acciones que cuentan con el apoyo económico de la Agencia es el del control "en terreno" de las actividades llevadas a cabo en relación con los objetivos perseguidos. Por esa razón, y con la prudencia que exige la situación económico-presupuestaria, se girarán las visitas de seguimiento que se consideren de mayor interés.

3.3. FORMACIÓN

El diseño y ejecución de la política de cooperación para el Desarrollo es el objetivo fundamental de la Agencia. Entendemos que no resulta fuera de lugar afirmar que este ámbito competencial de la administración exige unos presupuestos intelectuales específicos cuya adquisición y actualización requieren un proceso de formación permanente, no sólo para el personal técnico. La consecución de los recursos profesionales necesarios para facilitar la comprensión de las políticas y de los sistemas de gestión es predicable tanto de aquel personal que atiende directamente la complejidad esencial de las acciones de cooperación como de aquel personal que, ejerciendo funciones de apoyo administrativo, tiene presencia permanente en el trámite burocrático de los procedimientos, desde cualquier perspectiva.

Por las razones expresadas la Agencia va a formular un Plan de Formación para el personal adscrito a su servicio, que tendrá un carácter individualizado y se desarrollará, debidamente temporalizado, en diversas fases:

La primera vendrá referida al diagnóstico e identificación de las necesidades generales y específicas de formación del personal adscrito a la Agencia.

La segunda, corolario de la anterior, supondrá la aplicación de un plan específico de formación, con carácter individual, a cada una de las personas adscritas a la Agencia.

3.4. DIFUNDIR LA INFORMACIÓN EN TORNO A LA COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

Son muchas las acciones y actividades de la Agencia merecedoras de una difusión ordenada, estructurada y permanente. Por un lado no debemos obviar el hecho de que la gestión del Ente y los resultados obtenidos deben enmarcarse en las políticas de transferencia informativa del Gobierno. Tampoco podemos olvidar el derecho de los servidores públicos y de la ciudadanía en general a acceder a informaciones que han de considerarse básicas y elementales para la consecución del pertinente control político y social sobre el qué y el cómo de la gestión que le ha sido encomendada.

Sin perjuicio de que algunas de las actividades de la Agencia deban tener reflejo público a través de los diarios oficiales correspondientes, es lo cierto que existen otros canales de comunicación, propiciados por la sociedad del conocimiento, que facilitan y socializan el acceso a la información.

Agentziaren web-orria da aurrekoa lortzeko funtsezko tresna, jarduera orokorrari buruzko oinarrizko informazio-eskaerei erantzuten ahaleginduko baita diseinu egokia erabiliz. Era berean, berebiziko garrantzia du Agentziaren jarduera-esparruarekin lotura zuzena duten proposamenak, azterketak, monografiak, aipamenak eta bestelakoak zabaltzea papera edo bitarteko digitalak erabiliz.

Informazio-politikaren zehazpena komunikazio-plan batean gauzatuko da, eta bertan Agentziaren komunikazio-bitarteko guztiak antolatu eta koordinatu egingo dira.

3.5. AGENTZIAKO GENERO-ZERBITZUAREN FINKATZE-PROZESUEI LAGUNTzea

Agentzian genero-zerbitzua abian jarri ondoren, ezinbestekoa da haren ahalak sustatzea, sortu zenean zeukan helburua lortuko dela bermatzeko; helburu hau, hain zuzen ere: genero-ikuspegiak Agentziaren kudeaketa osoan zeharkako garapena izan dezan bermatzea.

3.6. ERAKUNDEEN ETA GIZARTEAREN PARTE-HARTzea

Euskal Autonomia Erkidegoan, garapenerako lankidetzaren antolamenduzko egituraketa 1/2007 Legean dago zehaztuta nagusiki, eta berekin dakar kide anitzeko bi organo egotea, zeinek bere funtzioak, helburua eta osaera izanda: Erakunde Arteko Batzordea eta Lankidetzaren Euskal Kontseilua.

Erakunde Arteko Batzordea 71/2009 Dekretuak araututa dago, eta EAEko administrazioen arteko elkarrekiko informazio-, komunikazio- eta laguntza-organoa da, estrategiak ituntzeko lankidetzako jarduerak gauzatzean, bikoizketarik egon ez dadin, ez eta gainjartzerik ere deialdietan eta jardueretan, eta koherentzia izan dezan administrazio horien lankidetzaz-jardun guztiak. Batzordea Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako eta, EUDELen bitartez, EAEko udaletako eta Euskal Fondoko ordezkari osatuta dago.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua 158/2008 Dekretuak araututa dago, lankidetzako eragileen ordezkari-organoa da, eta ahalmena du proposamenak egiteko, irizpenak emateko eta garapenerako euskal lankidetzaz publikoaren jarraipena egiteko. Kontseiluak osaera paritarioa dauka, eta bertan erakundeak eta gizarte-eragileak daude ordezkariak: Eusko Legebiltzarra, Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, udalak (EUDEL eta Euskal Fondoa) eta GGKEak.

Agentziak ahaleginak egingo ditu kide anitzeko bi organo horien funtzioen garapena ahalik gehiena sustatzeko, haien eginkizunen garapen ordenatua estrategikotzat jotzen baita lankidetzaz-politikaren diseinuaren eta gauzapenaren ikuspuntutik.

El instrumento fundamental para la consecución de ese logro es la página web de la Agencia que procurará, con un diseño adecuado, dar respuesta a todos los requerimientos de información básica sobre la actividad general. Asimismo se entiende de importancia relevante la difusión, en papel o por medios digitales, de propuestas, estudios, monografías, reseñas y cualquier tipo que guarden relación directa con el ámbito de actuación de la Agencia.

La concreción de la política informativa se plasmará en un Plan de Comunicación que articulará y coordinará la totalidad de los recursos de comunicación de la Agencia.

3.5. PROPICIAR PROCESOS DE CONSOLIDACIÓN DE UNIDAD DE GÉNERO EN LA AGENCIA

Una vez puesta en marcha la unidad de género en la Agencia, resulta imprescindible fomentar sus potencialidades para garantizar el cumplimiento del objetivo perseguido con su creación: garantizar que el enfoque de género se desarrolle de manera transversal en la gestión global de la Agencia.

3.6. PARTICIPACIÓN INSTITUCIONAL Y SOCIAL

La estructuración organizativa de la cooperación para el desarrollo en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, operada básicamente por la Ley 1/2007, supone la existencia de dos órganos colegiados, con funciones, objetivo y composición diferentes: la Comisión Interinstitucional y el Consejo Vasco de Cooperación.

La Comisión Interinstitucional está regulada por el Decreto 71/2009, es el órgano de información, comunicación y asistencia recíproca entre las distintas administraciones vascas, con el fin de consensuar estrategias en la ejecución de actividades de la cooperación para evitar duplicidades y solapamientos de convocatorias y actuaciones y dotar de coherencia a la labor del conjunto de la cooperación de esas administraciones. Esta comisión está compuesta por representantes del Gobierno Vasco, de las Diputaciones Forales y de los municipios vascos a través de EUDEL y de Euskal Fondoa.

El Consejo Vasco de Cooperación para el Desarrollo, regulado por el Decreto, 158/2008, es el órgano de representación de los agentes de cooperación, con capacidad de propuesta, dictamen y seguimiento de la cooperación pública vasca para el desarrollo. El Consejo tiene una composición paritaria y en él están representadas, tanto las instituciones como los agentes sociales: Parlamento Vasco, Gobierno Vasco, Diputaciones Forales, Ayuntamientos (EUDEL y Euskal Fondoa), y ONGD.

La Agencia va a procurar potenciar al máximo el desarrollo de las funciones de ambos órganos colegiados, por cuanto que el desarrollo ordenado de sus funciones se considera como estratégico desde la perspectiva del diseño y de la ejecución de la política de cooperación.

Parte-hartze instituzionalerako bi organo horiei buruzko egintzak alde batera utzi gabe, sektoreko erakundeekiko alde biko harremana –elkartze-educikoa zein bana-banakoa izan– garrantzitsua dela iruditzen zaigu, lankidetzeta-politikaren diseinuaren eta gauzapearen esparruan erabaki jakin batzuk hartzearen sozializazioa sustatzeko.

Zalantzarik gabeko interesa du Agentzia autonomiako, estatuko eta nazioarteko beste kontsulta-foro eta -gune batzuetan egoteak. Hortaz, ahalegina egingo da maila egokiko ordezkari bat egon dadin deitzen dioten instantzia guztietan, betiere presentzia hori egokituz jotzen bada Agentziaren beraren eta/edo besteren helburuak betetzeko.

3.7. ZERBITZU JURIDIKOA

Zerbitzu juridikoak Agentziaren legezketasun orokorraren kontrolarekin lotuta dauden jarduerak egikaritzen ditu. Dazkan zereginen artean hauek daude: xedapen orokorren proiektuen idazketa-lana; eskatzen zaizkion txosten juridikoak egitea; deialdi-ebazpenen administrazio-izapidearen ardurak; eta edozein administrazio-espediteraren kudeaketa.

1/2007 Legearen erregelamenduzko garapenarekin zerikusia duten zereginak, bestalde, dagokien atalean daude zehaztuta, baina, hala ere, garrantzitsua da azpimarratzea kasuan kasuko espedienteak izapidetzearen ardurak zerbitzu honi egokituko zaiola ikuspuntu teknikoaren eta juridikoaren aldetik, inola ere alde batera utzi gabe Agentziako, Jaurjaritzaren Lehendakariak beste barne-organoko batzuen eta txosten nahiz kontrol ekonomikoak eta juridikoak egiteko organoen eskumenak.

Agentziaren zerbitzuen egiturazko berrantolaketa dagokionez, haien arduradunen ustez egokia da Antolaketa eta Funtzionamendu Erregelamendua berrikustea, egiazta daitezkeen premietarako beharrezko egokitzapenetara moldatzeko. Era berean, espezifikoki beharrezkotzat jotzen da Agentziako Kontratazio Mahaia aldatzea.

3.8. EKONOMIAREN, AURREKONTUAREN ETA LANGILEEN KUDEAKETA

Ekonomiaren, aurrekontuaren eta langileen kudeaketaren ardurak Agentziaren zerbitzuetako bati egokitzen zaio, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera. Ardurak hori, zerbitzuaren administrazio-izendapenean zehaztutako kudeaketa-esparruei ez ezik, administrazio-kontratazioari eta baliabide teknikoak abian jartzeari eta mantentzeari ere egokitzen zaie, administrazio-bilakaera normaltasunezkoa izan dadin.

Sin perjuicio de las acciones referidas a ambos órganos de participación institucional, la relación bilateral con las organizaciones del sector –tanto de contenido asociativo como individual– nos parecen de relevancia en orden a propiciar la socialización de la adopción de determinadas decisiones en el ámbito del diseño y de la ejecución de la política de cooperación.

La presencia de la Agencia en otros foros y espacios de naturaleza consultiva, de ámbito autonómico, estatal e internacional, resulta de incuestionable interés. En consecuencia, se procurará la asistencia de una representación del nivel adecuado en todas aquellas instancias a las que sea objeto de convocatoria siempre que la presencia se considere apropiada para el cumplimiento de los objetivos propios y/o ajenos.

3.7. SERVICIO JURÍDICO

El servicio jurídico, ejerce las actividades relacionadas con el control de legalidad general de la Agencia. Entre sus funciones se incluye el trabajo de redacción de los proyectos de disposiciones de carácter general, la emisión de los informes jurídicos que se le soliciten, la responsabilidad del trámite administrativo de las distintas resoluciones de convocatoria y la gestión de los cualesquiera expedientes administrativos.

Las tareas relacionadas con el desarrollo reglamentario, en su caso, de la Ley 1/2007, están detalladas en el apartado correspondiente, sin embargo es importante reseñar que, desde el punto de vista técnico-jurídico, la responsabilidad del trámite de los expedientes correspondientes van a recaer en este servicio, sin perjuicio de las competencias de otros órganos internos de la Agencia, de la Presidencia del Gobierno y de los órganos de informe y control, tanto económicos como jurídicos.

En lo que se refiere a la reordenación estructural de los servicios de la Agencia, sus responsables valoran como adecuada una revisión del Reglamento de Organización y Funcionamiento para su adecuación a las adaptaciones requeridas por las necesidades que pudieren constatarse. Específicamente se entiende necesaria, asimismo, la modificación de la Mesa de Contratación de la Agencia.

3.8. GESTIÓN ECONÓMICA, PRESUPUESTARIA Y DE PERSONAL

La responsabilidad de la gestión económica, presupuestaria y de personal se adscribe a uno de los servicios de la Agencia, conforme a lo previsto en el Decreto 95/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento. Esta responsabilidad alcanza, además de a los ámbitos de gestión definidos en la intitulación administrativa del servicio, a la contratación administrativa y a la puesta en marcha y mantenimiento de los recursos técnicos para que el devenir administrativo pueda desarrollarse con normalidad.

Aurre egin behar dien erronkak funtsean hauek dira: ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketaren kontrola, haren aldaera guztietan; langile-afereen kudeaketaren egokitzapena, langileak funtzionarioak eta lan-kontratadunak direlako arazo gehitua kontuan hartuta; kontratazio-espedienteen izapidetzea; eta haiek ordenamendu juridikoaren araberakoak direlako kontrola.

Ekonomiaren eta aurrekontuaren kudeaketaren ardurak, diru-fluxuak legezkotasuna guztiz errespetatuz egiten direlako kontrolaz gain, bai eta agentziaren ekonomia- edukiko jardura guztia aurrekontu-legezkotasunaren araberakoa delako kontrolaz gain ere, egiturazko garrantzia duten beste ekintza batzuei egin behar die aurre; adibidez, urteko aurrekontuen aurreproiektuaren proposamena prestatu behar du, hala nola Agentziaren urteko kontuen proposamena, eta, azken horri dagokionez, ikuskaritzak haien gainean egin behar dituen lanak errazten ditu.

Langileen ardurei dagokienez, giza taldearen lan-alderdien kudeaketarekin zerikusia duten kontu guztiak ordenamendu juridikoa eta Jauriaritzak lortutako akordioak errespetatuz egiten direla kontrolatu behar du. Alde horretatik, eraginkortasunez kudeatuko du aipatu diren prestakuntza-konpromisoen sustapena.

Beharrezko bitarteko teknikoak eskura jartzeari dagokionez, Agentziaren zerbitzu guzti-guztiek helburu orokorrak behar bezain ongi lortzeko adina mekanismo dituztela zainduko du.

Los retos que afronta son básicamente el control de la gestión económica y presupuestaria, en todas sus variables, la adecuación de la gestión de los asuntos de personal, teniendo en cuenta la dificultad añadida de que está constituido por funcionarios y laborales, y la tramitación de los expedientes de contratación y el control de que los mismos se adecuan al ordenamiento jurídico.

La responsabilidad de la gestión económico-presupuestaria, además del control de que los flujos monetarios se lleven a cabo con absoluto respeto a la legalidad y de que toda la actividad de la agencia, con contenido económico responda a la legalidad presupuestaria, afronta otras acciones de relevancia estructural como son la elaboración de la propuesta del anteproyecto de presupuestos anuales y la elaboración de la propuesta de las cuentas anuales de la Agencia, facilitando, en este último aspecto, los trabajos de la auditoría sobre las mismas.

En el ámbito de las responsabilidades del personal, debe controlar que todos los aspectos relacionados con la gestión de los aspectos laborales del equipo humano se lleven a cabo con respeto al ordenamiento jurídico y a los acuerdos alcanzados por el Gobierno. Gestionará en ese sentido, de manera efectiva, en el impulso de los compromisos de formación a los que se ha hecho referencia.

En lo que respecta a la puesta a disposición de los recursos técnicos necesarios, velará porque todos y cada uno de los servicios de la Agencia dispongan de los mecanismos suficientes para que los objetivos generales sean alcanzados con la adecuación requerida.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>1. LANKIDETZARI BURUZKO EUSKAL LEGEAREN AURREIKUSPENEN GARAPENA</p> <p>1.1 Lankidetzarako Eragileen Erregistroari buruzko dekretu bat egin eta onartzea.</p> <p>1.2. Lankidetzarako baliabideak arautzen dituzten dekretuen berrikuspen-prozesuaren hasiera, haiek egokitzeko.</p> <p>1.3. Plangintza-orientabide orokorrak egitea, Eusko Legebiltzarrera bidaltzeko, onar ditzan.</p> <p>1.4. Garapenerako Lankidetzako Lau Urteko Gida Plana egitea eta onartzea.</p> <p>1.5. Garapenerako Lankidetzako Urteko Plana egitea eta onartzea.</p> <p>1.6. Ebaluazio Plan Orokorra egitea eta onartzea.</p>	<p>1</p> <p>3</p> <p>1</p> <p>1</p> <p>1</p> <p>1</p>	<p>1. DESARROLLO DE LAS PREVISIONES DE LA LEY VASCA DE COOPERACIÓN</p> <p>1.1 Elaboración y aprobación de un Decreto de Registro de Agentes de Cooperación.</p> <p>1.2. Inicio de un proceso de revisión de los Decretos reguladores de los instrumentos de cooperación para su adecuación.</p> <p>1.3. Elaboración de las orientaciones generales de planificación para su remisión al Parlamento Vasco, para su aprobación.</p> <p>1.4. Elaboración y aprobación del Plan Director Cuatrienal de Cooperación para el Desarrollo.</p> <p>1.5. Elaboración y aprobación del Plan anual de Cooperación para el Desarrollo.</p> <p>1.6. Elaboración y aprobación de un Plan General de Evaluación.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>1.7. "Herrialde-Estrategia" plangintza-baliabidearen ebaluazioa.</p> <p>2. GARAPENERAKO LANKIDETZA-BALIABIDEEN KUDEAKETA, AURREKONTU-AUKEREKIN BAT ETORRITA</p> <p>2.1. Laguntzarako eta diru-laguntzarako deialdien denbora-berrantolaketa.</p> <p>2.2. Aurreko aurrekontu-ekitaldietan emandako laguntzen espedienteen kudeaketa ordenatua.</p> <p>2.3. Esku-hartzeak nola egikaritzen diren bertatik eta zuzenean jakiteko bisitak.</p> <p>2.4. Kudeaketa-protokoloen berrikuspena.</p> <p>3. LANGILEEN PRESTAKUNTZA</p> <p>3.1. Agentziari lotutako langileen prestakuntza-behar orokorren eta espezifikoaren diagnostikoa eta identifikazioa.</p> <p>3.2. Agentziari lotutako pertsonetako bakoitzari banako prestakuntza-plan espezifikoa aplikatzea.</p> <p>4. GARAPENERAKO LANKIDETZAREKIN LOTUTAKO INFORMAZIOA ZABALTZEA</p> <p>4.1. Komunikazio-plana.</p> <p>4.2. Web-orria egokitzea eta eguneratzea.</p> <p>4.3. Agentziaren urteko memoria zabaltzea.</p> <p>4.4. Egindako jardunaldiei buruzko memorien diseinua, maketazioa eta edizio digitala.</p> <p>4.5. Lau Urteko Gida Planaren 1.000 ale argitaratzea.</p> <p>5. AGENTZIAKO GENERO-ZERBITZUAREN FINKATZE-PROZESUEI LAGUNTZEA</p> <p>5.1. Generoari buruzko jardunaldi bat antolatzea sektoreren batekin lotuta, GGKEetara zuzenduta.</p> <p>5.2. Genero-zeharkakotasuna lankidetzabaliabideetan biltzeko irizpideak aztertzea eta hobetzea.</p> <p>5.3. Berdintasunaren aldeko antolaketa-prozesuetarako osagarriak finkatzea.</p>	<p>1</p> <p>10</p> <p>1</p> <p>1</p> <p>1</p> <p>4</p> <p>1.000</p> <p>1</p>	<p>1.7. Evaluación del instrumento de planificación "Estrategia-País".</p> <p>2. GESTIÓN DE LOS INSTRUMENTOS DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO, EN COHERENCIA CON LAS DISPONIBILIDADES PRESUPUESTARIAS</p> <p>2.1. Reordenación temporal de las convocatorias de ayudas y subvenciones.</p> <p>2.2. Gestión ordenada de los expedientes de ayudas cuya concesión se haya efectuado en ejercicios presupuestarios anteriores.</p> <p>2.3. Visitas a terreno para el seguimiento de la ejecución de las intervenciones.</p> <p>2.4. Revisión de protocolos de gestión.</p> <p>3. FORMACIÓN DEL PERSONAL</p> <p>3.1. Diagnóstico e identificación de las necesidades generales y específicas de formación del personal adscrito a la Agencia.</p> <p>3.2. Aplicación de un plan específico de formación, con carácter individual, a cada una de las personas adscritas a la Agencia.</p> <p>4. DIFUNDIR LA INFORMACIÓN EN TORNO A LA COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO.</p> <p>4.1. Plan de Comunicación.</p> <p>4.2. Adecuación y actualización de la página web.</p> <p>4.3. Difusión de la Memoria anual de la Agencia.</p> <p>4.4. Diseño, maquetación y edición digital de memorias correspondiente a jornadas realizadas.</p> <p>4.5. Publicación de 1.000 ejemplares del Plan Director Cuatrienal.</p> <p>5. PROPICIAR PROCESOS DE CONSOLIDACIÓN DE UNIDAD DE GÉNERO EN LA AGENCIA</p> <p>5.1. Preparación de una jornada de género en relación con alguna sectorial, dirigida a las ONGD.</p> <p>5.2. Análisis y mejora de los criterios para la incorporación de la transversalidad de género en los distintos instrumentos de cooperación.</p> <p>5.3. Consolidar el acompañamiento a los procesos organizacionales pro-igualdad.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
6. PARTAIDETZA SOZIALA ETA INSTITUZIONALA		6. PARTICIPACIÓN SOCIAL E INSTITUCIONAL
<p>6.1. Garapenerako Erakunde Arteko Batzordearen funtzioen garapena sustatzea, ohiko eta ezohiko saioetarako deialdien bidez.</p>	1	<p>6.1. Propiciar el desarrollo de las funciones de la Comisión Interinstitucional de Cooperación para el Desarrollo, a través de la convocatoria de sus sesiones, ordinarias y extraordinarias.</p>
<p>6.2. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren funtzioen garapena sustatzea, ohiko eta ezohiko saioetarako deialdien bidez.</p>	4	<p>6.2. Propiciar el desarrollo de las funciones del Consejo Vasco de Cooperación para el Desarrollo, a través de la convocatoria de sus sesiones, ordinarias y extraordinarias.</p>
<p>6.3. Kontsulta- eta lan-guneetan parte hartzea, autonomian, estatuan eta nazioartean.</p>	6	<p>6.3. Participación en espacios consultivos y de trabajo a nivel autonómico, estatal e internacional.</p>
7. ZERBITZU JURIDIKOA		7. SERVICIO JURÍDICO
<p>7.1. Antolaketa eta Funtzionamendu Erregelamenduan ezarritako erantzukizun generikoak egikaritzea.</p>		<p>7.1. Ejecución de las responsabilidades genéricas establecidas en el Reglamento de Organización y Funcionamiento.</p>
<p>7.2. 1/2007 Legea garatzeko eta, hala egokituz gero, lankidetzabaliabideak onartzeko eta erregulatzeko arauen aurreproiektuen prestaketa.</p>		<p>7.2. Preparación de los anteproyectos de las normas de desarrollo de la Ley 1/2007 y, en su caso, de las que aprueba y regulan los instrumentos de cooperación.</p>
<p>7.3. Agentziaren Antolaketa eta Funtzionamendu Erregelamendua aldatzeko aurreproiektuaren prestaketa, eta haren izapidearen jarraipena.</p>	1	<p>7.3. Preparación del anteproyecto de modificación del Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Agencia y seguimiento de su trámite.</p>
<p>7.4. Agentziaren Kontratazio Mahaia sortzen duen Agindua aldatzeko arauaren prestaketa, eta haren izapidearen jarraipena.</p>	1	<p>7.4. Preparación de la norma de modificación de la Orden que crea la Mesa de Contratación de la Agencia y seguimiento de su trámite.</p>
8. EKONOMIAREN, AURREKONTUAREN ETA LANGILEEN KUDEAKETA		8. GESTIÓN ECONÓMICA, PRESUPUESTARIA Y DE PERSONAL
<p>8.1. Agentziaren urteko kontuen proposamena egitea, Kontseilu Errektoreak onar dezan.</p>	1	<p>8.1. Elaboración de la propuesta de cuentas anuales de la Agencia para su aprobación por el Consejo Rector.</p>
<p>8.2. Agentziaren Aurrekontu Aurreproiektua egitea, Kontseilu Errektoreak onar dezan.</p>	1	<p>8.2. Elaboración del Anteproyecto de Presupuestos de la Agencia para su aprobación por el Consejo Rector.</p>
<p>8.3. Agentziako langileen Prestakuntza Plana sustatzea.</p>	1	<p>8.3. Promover el Plan de Formación del personal de la Agencia.</p>
<p>8.4. Elkarlanean aritzea Zerbitzu Juridikoarekin aurretiko lanetan, Agentziaren Antolaketa eta Funtzionamendu Erregelamendua eta Kontratazio Mahaia arautzen duen Agindua aldatzeko.</p>	2	<p>8.4. Colaborar con el Servicio Jurídico en los trabajos previos para la modificación del Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Agencia y de la Orden que regula su Mesa de Contratación.</p>
<p>8.5. Agentziak informatikaren ikuspuntutik dauzkan beharrak betetzeko, EJI Erekiko kudeaketa-mandatuaren luzapena sustatzea eta kudeatzea, edo beste mandatu bat izenpetzea.</p>	1	<p>8.5. Promover y Gestionar la prórroga o la nueva suscripción de una encomienda de gestión con EJI E para la cobertura de las necesidades que, desde el punto de vista informático, tiene la Agencia.</p>

**4. LURRALDE-SAILKAPENA. GASTUAK ETA
 INBERTSIOAK**

**4. CLASIFICACIÓN TERRITORIAL. GASTOS E
 INVERSIONES**

%	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	Lurraldekatu gabe Sin territorializar	GUZTIRA TOTAL
Gastuak Gastos	--	--	--	100	100
Inbertsioak Inversiones	--	--	--	100	100
GUZTIRA TOTAL	--	--	--	100	100